

Hitzordu

Zenbait idazle, argitaldari eta itzultzailei proposatutako «Hitzordu» honetan era askotako pertsonaiak azaldu dira, gehienak literatura popularretik etorriak. Eskatutakoa: norberaren haurtzaroan eragin gehien ekarritako pertsonaia.



Capitán Trueno eta beste

Ez naiz gogoratzen *ipuinaren* izenaz, ezta egileaz ere, baina aski ondo gogoratzen naiz *ipuin* hark utzitako sentsazioaz. Ni ohean nengoen etzanda, minez, sukarrak jota, eta ezin nintzen mugitu; momifikatua sentitzen nuen neure burua, ezin nintzelako inora joan; bueltak ematen nituen ohean, izerdi patsetan, maindireei itsatsita kola izango bainuen gorputz osoan. Egunak pasa ziren, baina ni ohean egon behar izan nuen senda-

gilearen aginduz. Eta, gogoratzen naiz, une seinalatu batean, norbaitek irakurri zidala *ipuin* bat –Nire familiako norbait izango zen; agian, ama, edota, arrea–. Ondo gogoratzen naiz *ipuin* hura irakurri zidatenean zer nolako alkimia gertatu zen niregan. Nik uste nuen bakarra nintzela munduan oheko sufrikario hura jasaten; ordea, *ipuin* hura entzuterakoan konturatu nintzen ipuin hartako pertsonaia ere nire egoera berdinean zegoela. Ipui-

netako pertsonaiak nik adinako arrabia zeukan, nik bezalako gogoia zeukan bizitzeko; baina, funtsean, niri gertatzen zitzaidan arazo bera gertatzen zitzaion: ezin zela mugitu, eta ni bezain bakarrik sentitzen zela. Horretaz ondotoxoa gogoratzen naiz, bai! Eta gogoratzen naiz egun haietan egunero eskatu nuela istorio hura entzutea, behin eta berriro. Izan ere, *ipuin* hark asko zekien nitaz, inork ezer esan gabe. Gainera, misterio aire batez agertzen zitzaidan beti, zuri-beltez ilustratutako orri basatietan barrena. Eta nire sentimenduak hain ongi islatzen zituen, non, erabateko babes eskaintzen baitzidan, eta oroz gainetik sosegua ematen. Gero, egun batean, ni osatu, ohetik jaiki eta ahaztu egin nintzen liburu hartaz. Lehen haurtzaroko sententzio hura, ordea, ez zait memoriatik aldentu. Pertsonaia hura izan baitzen nire egoera animikoarekin hobekien sintonizatu zuen lehen laguna. Geroztik, nire libururik kuttunenak horrelakoxeak izan dira: nire benetako ametsekin konektatzeko oihartzun-lekuak, nire egoera animikoarekin enpatizatzekeo ispiluak, bizitzaren misterioarekin harrapatua sentitzeko amaraunak, eta abar.

Bigarren pertsonaia, *Capitan Trueno* izan zen, batere dudarik gabe.

Igandero-igandero erosten nuen, edota, erosten genuen, gure lagunaren arteko heroirik han-



diena bera zelako. Igandetako mezatik aterata huraxe zen gure eginbeharririk handiena: *Capitan Trueno* tebeoa erostea. Erosi ere, drogeria batean erosten genuen, garai hartan ez baitzegoen –gure herrian, behinik behin–, drogeriaz kanpo *Capitan Trueno* erosteko beste lekurik. Eta gogoratzen naiz txoko berean egoten zela nire heroia paper marroian bildua, sorpresa-zorroan bezala, emakumeak erabiltzen zituzten perfume fraskoen ondoan, Aita Mendiburu idazle handiaren estatuaren frentean, hantxe, etzanda jarrita, leku finkoan, abentura berriak bizitzeko zai. Heroi harrekin era guztietako abenturak bizitzen nituen, era guztietako lekuetara joaten, zibilizazio ezberdinekin harremanetan jartzen... Eta, gainera, beti irabazle izaten nintzen borroka guztietan, garai hartan Real Madrid irabazle izaten zen bezala futboleant. Nola esan: nolabait, hilezkor sentitzen nintzen, eta batez ere «pertsonaia gaizto eta etsai guztiak» menderatzeko ahalmen izugarria neukan. Heroi hark ondotoxoa islatzen zuen garai hartako ideologia, moralak, antisia eta ikuspegi kolonizatzailea. Alabaina, ideologiak ideologia, *Capitan Trueno* izan zen nire gogoia asetu zuen pertsonaia, nahiz eta gero alde batera utzi, zorionez, beste erabateko ikuspegi zeukaten pertsonaien bitartez.

PELLO AÑORGA

Capitán Trueno

Nire haurtzaroan pisu haundia, ez haundiegia baina, izan zuten *Capitán Truenok*, Goliatek eta Crispínek. Nahiago nituen Jabato, Goliat eta Fideo Miletokoa baino. Batetik Mileto hori urrutikoa iruditzen zitzaidan, oso urrutikoa. Bai, badakit, Sigrid Thulekoa ere ez zela bertakoa; bi-

kingo arraza. Euskalduna ia. Gero, handik urtetara, irakurtzaletasuna nuelarik, «Le Roi de Thule» poema irakurri nuen: *Il était un roi de Thule a qui son amante fidèle légua, comme souvenir d'elle, une coupe d'or ciselé*. Miletokoa Tales zen, teoremaren sortzaile, eskolan buruz ikasi behar genuena: *Todo cuerpo sumergido en un fluido...* Ut! Ut!, pentsamendu mingotsak.

≈ Hitzordu ≈

Nire haurtzaroan denok ginen katoliko, apostoliko eta euskaldun, edo euskaldun erromatar gutxienez. *Capitán Trueno* gutarra zen, beraz, gogor borrokatzen baitzen mairu jendearen aurka. Erljio gizona zen, misiolaria ia. Garai hartan izan ere, guk ere misiolari nahi genuen izan, Afrikako bazter batera alde egin eta hango gaixopobreak arretaz zaindu.

Nire haurtzaroan denok ginen borrokalari, bigabekeriaren aurkari. Banda bat (zintzoena, noski) sortu genuen kalean. Gaztelu bat eraiki genuen, arotzaren biltegian, aldapa batean (erraza defendatzen). Eta han gordetzen genituen printzesa irainduak (geroxeago erreginak izango zirelakoan), koblakari jipoituak, eta, gerrilari ausartak gu, mendeku bila ateratzen ginen *Capitán*

Trueno bezala. Goliat bat genuen, indartsua oso, harakinaren seme; eta Crispín bat, Crispínen semea izaki, Crispín deitzen geniona, bera benetakoa izena Joxe Manuel bazen ere. Eta Sigrid amets. Eta Thule. Eta bikingoak.

Behin, beste kalekoak sartu ziren gure gazteluan eta dena suntsitu zuten. Printzesak eta koblakariak haiekin joan ziren, haienera. Eta guk mendira jo genuen, gerra santuaren garra ez itzaltzeko asmo sendoz gainera. *Capitán Truenok* egingo zukeena, gure larruan balego.

Gurasoak etorri zitzaizkigun bila.

Erre egin zizkiguten (niri eta lagun-kideei) *Capitán Truenoren* kuentoak. Agur Sigrid Thulekoa, gure erregina ezkutukoa.

FELIPE JUARISTI

Sherlock Holmes-en atzetik

Oso erraza, Watson maitea. Berehala antzemango dio esaldi horri Sherlock Holmes-en abenturak irakurri dituenak. Eskoziako kapelua buruan eta lupa eskuan, batetik bestera ibiliko zen Londonen barrena gure detektibe pribatua, aztarna bila. Eta gu haren atzetik, gure auzoko txoko guztiak –zirenak eta behar ez zirenak– miatuz. Era guztietako bitxikeriak aurkituko zituen Holmesek lanean: zigarrokin turkiarrak, laranja bihiak, isilpeko eskutitzak. Eta gu haren atzetik, zorroan metatuz kaleko zikinkeria guztiak: goitibehera apurtuak, ispilu pitzatuak, telefonikako kable gorri, hori, berde kolorekoak. Animalia bitxi eta jende harrigarri asko ikusiko zituen detektibeak: diamanteak irentsitako antzarrak, ezpain bihurrituak zituzten gizonak eta ilegorrien elkarteko kideak. Hura inbidia! Gure inguruan ez genituen halakoak ezagutzen, denak ziren



dendari potoloak eta *Ongi Etorri* tabernara biltzen ziren langileak. Gainera, abantaila handiak zituen Holmesek ikerketak egiteko. Lehenik eta behin, etxean zuen laboratoriora. Gure traste guztiak txoko batean nekez metatzen genituen garai hartan, hara non detektibe eskoziarra etxeko gelan antolatzen laboratoriora! Garai hartan, halaber, zitroi-uraz egindako mezu sekretuak elkarri pasatzen genizkion, baita seinaleak bidaltzen ere

Niveako latorri koipetsuak erabiliz. Azken batean, liluratuta geunden lagunak Holmesen tramankuluei begira. Auzoko etxe eta pasabideetan aurkitu nahi genituen abenturak: auto lapurtuak, Lezama-Mungia trenbidearen tunelak, Lucarini eskultorearen etxe abandonatua. Ez zen harritzekoa. Hainbeste ate ezkutu, hormako zirrikitu, eta hildakoren bat edo beste gordetzen zuten sotoak ikusiak

genituen Holmesen abenturetan! Onena, ordea, Holmesen dedukzioak ziren. Bai erraz jakitea halako gizon musugorria Afganistango gerlan ibilia zela erlojuari begiratu hutsez! Eta guk ahaleginak egingo genituen jakiteko ea gure auzokoak Eragako hondartzatik zetozen edota Artxandatik, oinetakoen lorratzei begira! Ikasgelako lezioei baino probetxu handiagoa ateratzen genien Hol-

mesen abenturei, inondik ere: fisika, kimika eta logika, denak batera azalduta. Harrezkero, zirimiria egiten zuen bakoitzean, prest geunden sinesteko gure auzoa Londresko auzo bazter bat zela, eta edozein momentutan Holmes agertuko zela txoko batetik, beti bezala, Eskoziako kapelua buruan, lupa eskuan. Eta gu haren atzetik.

JAVI CILLERO

Oso txikia nintzenean

Nire bizitzan atzeraka egiten badut, gazte edo oso gazte nintzen garai urrun haietan gogoia jarritz, bat-batean bi oroitzapen datozkit eta horietako bat oso gazte baino gehiago, ume nintzeneko garaikoa dela esango nuke. Orain garai hura lurrun batean bildurik azaltzen zait eta benetan oso zaila da niretzat zehaztea zenbat urteko ume izango nintzen orduan. Zaila da baita ere esatea lehen ipuin hura nork irakurri edo kontatu zidan. Badakit handik gutxira neronek irakurri egin nuela –eta behin eta berriro irakurri ere– baina lehendabiziko inpresio hura, lehendabiziko zirrara ahantziezin hura sortu zitzaidan (eta niregan betiko errotu) etxean norbaitek kontatu edo irakurri zidalako.

Askotan saiatu naiz, neure buruarekin eginiko ariketa bakartian, deszifratzen garai hartan entzun edo ikasi nituen ipuin guztien artean zergatik izan zen hau bereziki eta ez beste edozein, zergatik honek sortarazi zidan halako zirrara aparteko hura, beste edozein ipuinek baino askozaz gehiago. Eta erantzuna ez da erraza.



Orduan ez nekien eta gainera dexente urte gehiago pasatu arte ez nuen jakin ipuin hura, «Hansel eta Gretel» (horixe baita ipuin miresgarri horren izena), Grimm anaiena zenik baina ordutik ez zait inoiz nire barru-barrutik aldendu edota ahaztu, ez istorioa bera ezta garai hartan enegan sortarazitako zirrara beldurgarri hura.

Niri esan zidaten bertasioan Hansel gizarajoak oilasko hezurtxoak erakusten zion zuloxtotik amandregin zatar hari eta honenek, pentsatuz mutikoa ez zela loditzen berak nahi bezain aguro, jateko gehiago ematen zion orduan bertantxe akabatu ordez.

Ipuin guztian hori, eszena hori, da niregan bertirako iltzaturik geratu zena; eszena horretan oilasko hezurtxoak nire bihotzean iltzaturik geratzen baitzitzaidan eta dardar batean geratzen nintzen, neu ere Hansel bezalaxe, itxoiten zein izango zen sorgin haren hurrengo erreakzioa.

Eta lehen aipaturiko arazoaren gakoa hementxe uste dut dagoela, hots, horrexegatik nuela nik orduan ipuin hau gogokoen beste edozein baino

gehiago eta gako horrek baduela zerikusia gaizkiaren problemarekin.

Ipuin honetan niri iruditzen zitzaidan orduan posible zela gaizkiarekin aurrez-aurre topo egitea bai baina baita ere gaizkiari ekiditea, gaizkia saihestea benetako hatza erakutsi ordez hezurtxo batekin engainatuz gaizkiaren irudi ankerra zen amona sorgin beldurgarri hura.

Nik orduan ezagutzen nituen beste ipuinetan gaizkia azaltzen zen baina ez zen posible izaten haren kontra ezer egitea, ez behintzat halako

modu azkar eta iradokitzailean. Irudi plastiko hura koadro baten modura geratu zait ene gogoan –eta berrogei urte baino gehiago joan dira ordutik– iltzaturik eta badakit seguru hatz txikiak eta oilasko hezurtxoak baduena zerikusirik horretan. Baina oraindik ere ez dakit ongi zergatia esplikatzen, oraindik ere dena lurrun batean bilduta daukat niregan (eta azalpen sexuarekin has-teko gogorik ez dut orain) baina oraindik ere ipuin zoragarria, denetan ederrena dela iruditzen zait.

JOXEMARI ITURRALDE

Nik haurtzaroan ez nuen pertsonaia literariorik ezagutu

Nik haurtzaroan ez nuen pertsonaia literariorik ezagutu, ezta literatura euskaraz irakurtzeko aukerarik ere izan, harik eta 14 bat urte izan nituen arte, 1945ean jaio bainintzen, frankismoaren garaiko urterik ilunenetan. Unibertsoan antimateria eta zulo beltzak diren bezalaxe, mundu honetan ere badira zulo beltzak eta antikultura eta antiliteratura bultzatu izan diren garaiak.

Bost bat urterekin hasi nintzen eskolan, erderarik jakin gabe, eta han dena erderaz irakasten ziguten. Irakurtzen 6-7 urterekin ikasi nuen *Paramijoa* izeneko liburu harrigarri batekin (*Parami hijo* zen liburuaren izen ofiziala, baina guk «paramijoa» bihurtu genuen objektu majiko bat bailitzan). Eta hura miraria, irakurtzen ikasi egin genuen! Baina tutik ere ulertu gabe. Gero, hamar urterekin ikasi nuen erdera.

Egia esan haurtzaroko lehen urte haietan gure pertsonaiak Fernando amezketarra, Mateo Txistu, sorginak, Sakamantekas eta antzekoak ziren. Ipuinak eta istorioak etxean entzuten genituen. Baina irakurtzeko girorik ez genuen ezagutu, batetik pobreak ginelako eta gure etxean libururik ez zelako eta bestetik euskaraz irakurtzeko aukerarik ez eskolan ez beste inon izan ez genuelako.

Hamar urterekin Arantzazura joan nintzen eta han ikasi nuen erdera. Ikasketa guztiak erderaz ziren. Astean behin ematen genuen euskara eta hantxe hasi nintzen poliki-poliki euskara nire etxetik nekarren kultura eta altxor baliotsu bezala sentitzen.

Baina gure kurrikuluma kultura klasikoan oinarritua zenez, latina eta griegoa ere ikasten aritu ginen eta bi kultura horietako mitoak eta autoreak izan ziren gure elikagai nagusi: Cicerón, Virgilio, Ovidio, Horacio, Julio Cesar, Tito Livio, Homero, Tucídides, Jenofonte, eta geroago Sokrates, Platon, Aristoteles...

Hamar urtetik hamalau urte bitarte horretan, gandu artean erdi lausotuta bezala, literaturaz gogoratzen ditudan pasarteak honako hauek dira: Iliada eta Odisea, Polifemoren istorioa (Tartaloren antzekoa), Gordiako korapiloa, Ikaro eta Dedaloren istorioa, Lazarillo de Tormesen kontakizun barregarria, Platero y yo, melankoliko eta kurtsia (niretzat garai hartan), Virgilioren Eglogak (oso ondo ulertzen ez nituenak askotan)...

Hamalau urtetik aurrera hasten naiz ni benetan irakurtzen eta literaturaz kezkatzen. Gogoratzen naiz 14-15 urte nituela Luis Alonso Schoe-

≈ Hitzordu ≈

kel-en *La formación del estilo* izeneko liburu bat ikasi behar izaten genuela Literaturako asignaturan. Han pasarte ugari ageri ziren, bereziki 98ko generazioko autoreenak: Azorín, Unamuno, Pío Baroja, Maeztu, Juan Ramón Jiménez... Baina horiez gain, beste zenbait liburu irakurri nituen egarriz eta gaur egun ez dakit nortzuk diren liburu horien egileak: *La rebelión de los bóers*, *La venganza del maorí*, *Águila Roja*... Azken hau izan zen niri gehien gustatu zitzaidana. Mutiko indio baten bizia eta balentriak kontatzen zituen.

Hamalau urterekin hasi nintzen baita ere euskaraz irakurtzeko kontzientzia hartzen. Nire lehen liburua Txomin Agirreren *Garoa* izan zen eta, egia esan behar badut, niri asko gustatu zitzaidan. Agian Arantzazun formazio mota bat jaso genuelako eta Garoan agertzen diren tokiak oso ezagun zitzaizkigulako, baina nik atsegin handiz irakurri nuen Agirreren obra handia. Eta nire hizkuntz ezaguera halamoduzkoa zelako, hiztegia erabili behar izaten nuen behin eta berri, eta blok batean apuntatzen nituen niretzat ezezagunak ziren hitzak. Uste dut Axularren garaitik Agirre bitarte ez dela beste autorerik egon euskal prosari halako aberastasun eta jarioartasunik eman dionik. Hau gero frogatu ahal izan nuen *Kresala* eta *Auñemendiko lorea* bere bi liburuak irakurtzean.

Hamasei-hamazazpi urterekin, hamar urte arte erderarik ez zekien gixajo hark *Las aventuras del ingenioso hidalgo Don Quijote de la Mancha* irakurri zuen bi tomotan eta, egia esan behar badizuet, gozamenez beteriko irakurketa zoragarria izan zen hura, nire kasa bakarrik jarri eta barre algara lasaiak jaurtiz, disfrutatuz... irentsi nuen Miguel de Cervantesen liburu paregabea.

Gero etorri ziren niretzat literaturako irakurketa aberatsenak: Dostoiewski, Mauriac, Bernanos, Van der Meersch, Tomas Mann, Ibsen, Knut Hamsun, Flaubert, Walter Scott, Kipling, Stevenson, Swift, Defoe, Salgari, Verne, Rodari, Collodi, Nöstlinger, M. Gripe, Wölfel, Grimm, Perraul, Andersen, Afanasiev, Hemingway, Steinbeck, Benedetti, García Márquez... Lizardi, Etxaide, Mitxelena, Txillardegui, Saizarbitoria, Lertxundi, Irigoien, Atxaga, Sarrionandia, Izagurre...

Ikusten duzuen bezala, nik haurtzaroan ez nuen pertsonaia literariorik ezagutu, inkulturaren eta ezjakintasunaren zulo beltzean bizi izan ginelako, baina gero literaturaren zeru urdina ezagutzeko parada izan nuen eta orain ez naiz asperitzen mota guztietako pertsonaiez beteriko paisaia garbi eta atsegin horietan hegaldatzen.

IÑAKI ZUBELDIA

Tarzan

Zein bizi da ohe azpian? Nondik helduko ote dira espaziuntziak? Jaizkibeleko magalean benetazko sorginak biziko al dira? Sanjuanen hasten den itsasoak ba ote ditu munstroak bere baitan? Jango al naute uretan sartzen banaiz? Zergatik esnatzen dira mamuak gelako argia itzaltzerakoan? Ikusi al dituzu? Hortxe daude! Gelan edonon! Lehiotik sartzen dira! Amaaa, piztu argia! Eta amak pasiloko argia pizten du, ateko zirrikitutik

sartzen sentitu nezan. Desagertzen dira mamuak, sorginak, munstroak, eta lo zorgorrean sartzen naiz. Amets gozoetan. Gozoetan? Desagertuko ote dira martzianoak, mamuak, sorginak eta munstroak?

Nondik sortzen ote dira irudi horiek? Zer hitzak, kontu entzun ditu haurrak, zer ikusi du bere irudimenak halako beldurrak sentiarazten dizkio- ten mamuak ikusteko? Eta nola egin aurre ho-

≈ Hitzordu ≈

riei? Nola garaitu erasotu nahi gaituzten muntro horiek? Badakit! Ikustezina bihurtuko naiz. Etxe bat egingo dut. Mahai azpian ezin naute harrapatu.

Baina orain handia naiz, beldur horiek umeen gauza dira. Gainera halakoak ez dira existitzen. Helduek gu engainatzeko erabiltzen dituzten trikimailuak dira. Orain handia naiz eta gauza inportanteagoak daude bizitzan. Txabolak eraikitzea esatebaterako. Etxe ondoan dagoen belardi horretan lagun artean txabola ederra eraikiko dugu. Auzo honetan badago nahiko materiale, oraindik etxeak nonnahi eraikitzen ari baitira. Lagunak elkartu eta kontu kontari ariko gara. Bidaiak antolatuko ditugu, *Bostak* egiten dituzten modukoak. Eta itsasondoan dagoen kobazulo batean sartuko gara; eta agian altxor bat topatuko dugu, edo bertan ezkututzen den hiltzaile bat; ez al zitzaien *Bostei* halako zerbait gertatu? Gauean jolasean ariko gara eta ni etxe ondoko arbol handian ezkutatuko naiz, eta nire azpitik pasatzen denak ez nau ikusiko, *Tarzan* bezala.

Tarzan sekulako pertsonaia omen zen. Oihanaren erdian bizi zen tximino artean eta sekulako abenturak pasatzen zituen. Afrikan bizi zen. Afrika izugarria izan behar du. Gure auzoa ez da Afrika. Han ez dago etxerik eta hemen etxeak, etxe erraldoiak baino ez daude. Baina *Tarzan* izan zaitezke. Arboletara igo, bueno, arbolara. Mendira joan gaitetzke eta han errekan bainatu, belarretan oinutsik ibili, arbol gehiagotara igo eta su batean txorizoak erre. Aitzbitarteko kobazuloetan barrena sartuko gara, inork aurkitu ez dituen historia aurreko aztarnak deskubrituko ditugu, eta, behar-



bada, periodikoetan agertuko gara. Sekulako abentura izan daiteke. Guzti hori ikasi nuen auzoko gazteen elkartearen zegoen liburu txikian aurreko batean hartu nuen liburuan. *Tarzan* zuen izenburua eta izen abizen arrotzak zituen tipo batek idatzi zuen.

Segidan irakurri nuen. Liburu honetan kontaktzen dena ez da pelikuletan erakusten diguten *Tarzan* bera, hau benetazkoa da. Bertan agertzen diren abenturak korritzea gustatuko litzaidake. Igeriten hobeto ikasi behar dut eta mendira joaten naizenean txorien kantuak entzuten saiatuko naiz zer kontatzen duten jakiteko. Bidezidorretatik ibiliko naiz, edo hobeto, biderik ez dagoen lekutan sartuko naiz; abentura interesgarriak biziko ditut.

Umekeri horietan ibiltzea ere! Institutura joan behar dut. Ikasi behar dut. Pertsona heldu bat naiz. Serio aritu behar dut. Ikasi behar dut. Ikasi behar dut. Ez dago ez sorginik, ezta muntroirik ere. Martzianoak beste gelakoak dira. *Bostak* hortera batzuk ziren. Eta *Tarzan* hondartzan giharrak erakusten dabilen babu hori da. Edo ez? *Tarzan* ez. *Tarzanek* abenturarako grina sartu zidan. Liburu hartan urrutiko munduak ezagutu nituen, pertsonaia harrigarriak irudikatu nituen. Porlanezko hirigintza erotik lianaz liana egiten nuen ihes *Tarzanekin*. Nere burua munduan bakarrik aurrera ateratzen saiatzen nintzen *Tarzanekin*. Bai hala da, gainontzekoak zorakeriak ziren, baina *Tarzan* kristona zen. A! Eta Iribar ere bai.

JOSEMARI CARRERE

Neska pija baten menturak

«Eztet nahi, aspertzen naiz», erantzuten digute haurrek irakurtzea gomendatzen diegunean. Eta gure belaunaldiak, prediku luzeak egiteko ezin-
duak, pairatu behar du ikustea nola nahiago du-
ten ondo aspertzea, liburu batean murgiltzea
baino.

Zorionez ez zen nire kasua izan. Gerra ondo-
rengo Donostiako eskola nazionaletan, mutil
gutxi batzuentzako objetua zen liburua, norma-
lean dirua izatearekin lotua zihoana. Faszismoak
emakumeoi egin zigun mesede berezia!

Zorionez aita izan nuen beti liburu bat alboan
eramaten zuena, exenplu txarra nire amaren
aburuz, gaur ikusita, exenplu ezin hobea, zeren
berrogeitamarkako gizarte hits hartan, inork bul-
tzatu gabe egin nintzen irakurle; irakurle porroka-
tua gainera. Hasieran *TBO*etako pertsonaien
lotsagabekeria inozoez elikatzen nintzen, artean
gazte ez, baina bai berde zen neskak, bihurriker-
ia-eskola hartan primeran pasatzen zuen.

Laster, hamar hamaika urte izango nituen,
Mari Pepa izeneko pertsonaia nire bizitzan sartu
zen arte.

Ez zen liburu, ipuin merke baten formatoa
zeukan, koloretako santuak eta guzti; gainera,
marjinalian bizi zen Karpantaren aldean, Mari
Pepak neskabila izaera liluragarria zeukan. Hemen
gogoratu behar dut inguratzen ninduen giroan
lilura arrastorik ez zegoela, zinez eremu latza ze-
lako orduko gizartea. Gauza da, ortodo-
xiak langile klaseko batentzat desego-
ki, alienagarri eta galgarri joko zuen
irakurgaiak pozoitu eta fikzioan
gora eramanez ninduela, hego sen-
doez hornitua; hain zuzen, grina
haren ondorioz, sei urte berandua-
go nire lehen soldataz, Simone de
Beauvoir-en liburuen liburua ero-
siko nuen.

Zerk erakarri ninduen sasi-ipu-
in

hartatik? Mari Pepak egiten zuen nik egin ezin
nuena, niretzat debekatua zegoen oro: batxilera-
toa ikasi; uniforme urdina jantzi, sonbreiru eta
guzti; antzerkera joan baimenik eskatu gabe bera
bakarrik, bera bakarrik! ; antzerkera joateko jan-
tziak aukeratu, eta, nire oroitzapenek huts egiten
ez badidate, geografia hala matematikak ikasiko
zituen deliberatu. Jakina, hau, oso arinki, son-
breiruen aukeraketak garrantzi askoz erabatekoa
baitzeukan.

Adats horaila zuela eta musika emanaldietara
joaten zela ere gogoratzen naiz. Orain, atzera be-
gira, pentsatzen dut nes-
ka pija izateaz aparte,
—pija bera, ez gaizki
ulertu—, bere ka-
san anzerkera
joate hark zer-
bait sakona
ukitu zuela
nire ame-
tsen kutxan,
g e r o a g o
madame de
Beauvoir-
ek, *Gazte
zintzo ba-
ten memo-*



≈ Hitzordu ≈



rioetan kontatutako istorioekin ukitu ninduen bezala. Biek, nork bere estiloan, xuxurlatu baitzidaten: Neska izan arren eskubidea dun.

Jakina, bizitzak beste kezkek ekarri zizkidan, eskubideen katalogoa berridatzi behar dugulako etengabe. Hurrengo Dostoiesky-raino egin nuen jauzi, neska pijoak zeukana zergatik ez neukan nik ulertzeko. Eta halaxe jarraitzen dut liburuz liburu jauzika, tarteka, nire irakurle grina bekaiztiak sortzen dituen Mari Pepa itxuraldatuak idazten.

MAITE GONZALEZ ESNAL

Gabelizop

Ziurrenik ez zuen izen hori izango. Irratian entzun nuela uste dut lehen aldiz. Garai hartan erderaz ulertzen komeriak nituen; irratian edo jendeari entzundako izen asko neure erara egokitzen nituen, belarrira hobeto zetozkidalako edo. Gaurko Arafat gaztaroan aurrera samartu arte Arataf izan nuen, Begiristain abizenari Berekistain esanda hobeto neritzon, Anonimo idazle aparta izan zen niretzat urte askotan, eta horrela zerrenda luzea: Jenorimo, Giller Motell, Matilde con Esa...

Gabelizop hori ez dakit nondik aterako nuen; auskalo. Baina, urtetan magoen magoa izan nuen. Merlinena beranduago jakin nuen; nire haurtzaroko magoa Gabelizop izan zen. Gogoan dut, ondo gogoan ere, magiaren egarri hura. Nire ama sutondoan josten ari zela, zazpi antxumeen ipuina kontatzen zidanean: haurrak berreskuratzearen magia, otso gaiztoaren engainuen magia. Geroxeago, Ogroaren ipuina oroitzen nuen; guxienez, hiru ipuinen argumentuak nahasturik

nituen buruan, baina ogroak ume usaina sentitzen zuen pasadizoa, eta zazpi legoako botak jantzirik ihes egiten «nuenekoa» erabat txertaturik geratu zitzaizkidan, barne-zirrara bortitz gisa: magiaren indarra.

Indar magiko horri jarri nion Gabelizop izena, non edo han entzunda, eta auskalo nola ulertuta. Urte askotan eraman nuen neurekin zirrara magiko hori, bere izen bereziarekin. Orain, ipuini ipuinenean ere indar bortitz haren zantzu arin batzuk besterik ez ditut sentitzen. Gabelizop oihartzun urruna da nire barruan, ia-ia itzalia, idatzi hau egiteko, ez dakit nola, bat-batean burura etorri zaidana; ziurrenik, hogeita hamar urte baino gehiago izango dira izen horrek inkontzientearen muga igarotzen ez zuela.

Haurtzaro-mina ekarri dit Gabelizopen oroitzenak. Hautzaro-minak narama luma hartzera. Berpiztuko al da noizbait zirrara hura?

JUAN KRUIZ IGERABIDE

E-mail bat Tom Sawyer maiteari

From: Maria Sun<Landa@sg.ehu.es
To: Tomsawyer@mississipi.mail.com
Subject: Hi haiz my boy
Date: Ast, 2000 Abuz 13 12: 27

Tom! Tom! Tooomm!

Lerro azkar batzuk gure arteko amodiozko-itu-na gogorazteko: *I love you darling, eta you love me*, ezta Tom? Bada, ez zekiat zergatik ez duan Becky tuntun hori behin betikoz ahazten, akaso neu ez nauk bera bezain polita izango baina askoz ausartagoa nauk, nirekin kobazuloetan galduz gero ez huke nigarririk egingo, ez ninduake kokilduko, disimulatuko niake bederen, eta gainera, neuk ere nire etxetik aldegin nahi diat, Mississippiko irla batean hirekin kanpatu... Huck Finn geldi zitekek gurekin, gogoko diat alproja hori, eta hirurok Joe indio gaizto maltzur hori harrapatu, eta famatu bihurtu herrian, hi bezala, hirekin beti.

Zergatik, bada, ez didak kasu egiten hainbat eta hainbat aldiz hire abenturak irakurri ondoren? Polly izebarekin hitzegin diat, ados zagok



zahar-etxe batean bizitzera joateko guk munduari itzulia egiten diogun bitartean, eta hire anaia Sim, zeken alen hori, prest zagok diru puska bat guri emateko, %10eko interesarekin, noski!

Beraz, mezuren bat bidali azkar baino azkarrago, zahartzen ari nauk eta, hain duk zaila gurea bezalako maitasun borobila aurkitzen! Bestela, ez diat e-mail gehiagorik bidaliko, beno, igoal bai, baina gaur, behintzat, ez.

Kiss, kiss, kiss!

MARIA SUN

Dick Turpin

Niri, egia esan, ia ahaztu ere egin zait noiz izan nintzen haur. Eta, bestalde, ez dakit haur izateko adin gehiegitxo duen gorputz batean ezkutatu-tako haur bat ez ote naizen.

Eta hori zergatik? Bada, haurtzaro askok kutsatuta bizi ahal izan dudalako. Aurrena nire hau-

rtzaroa bizi izan dut, noski; gero, nire ikasleena; seme-alabena ondoren eta oraindik gehiago bizitzeko asmoa dut...

Gure auzoa gogoratzen dut haurtzarotik. Herrietik kanpoko auzo txiki hura, ez kaletar eta ez baserritar egiten gintuen auzo hura.

Eta lagunak gogoratzen ditut; auzoko, baserrietako eta kaleko lagunak.

Eta irakurtzeko liburuak. Eskolako liburutegia zabaltzen zutenean han izaten nintzen ni edozer gauza irakurtzeko irrikitan. Baina gehien gustatzen zitzaizkidan liburuak abenturazkoak ziren. Baziren *Bru-guera* argitaletxeak ateratako liburu batzuk, ezker aldean beti testua eta eskuinaldian sarri-sarri marrazkiak zituztenak, eta haiexek ziren dene-tan gehien gustatzen zitzaizkidanak. Izugarritzko abenturak irakur zitezkeen liburu haietan eta izen arraroko heroiak ezagutu: Robin Hood, Ivanhoe, Zaldun beltza, Sandokan, Arturo eta mahai bo-robileko zaldunak, Gezi Beltza...

Baina bakoitzak izaten ditu bere zaletasunak eta niri gehin gustatzen zitzaidana *Dick Turpin* izeneko bat zen. Robin Hood ere bai, baina hau gutxiago.

Robin Hood ausarta eta kementsua zen, bai-na bere andregai zela eta ez zela nahiko txorake-ria egiten zituen hura salbatu nahian eta horre-lako gauzetan.

Dick Turpin, berriz, ausarta eta kementsua izateaz gain, lotsagabea, neskazalea eta ahozikina zen. Gaizki ala ondo, esaldi bat ere ikasi edo as-



matu genuen Dick Turpinen mihi-gaiztoa erabiliz gure axolagabekeria adierazteko: *Mas no importó –dijo Dick Turpin a la marquesa–. Saldremos por la puta claraboya.*

Dick Turpinek bazuen zaldi zuri bat, azkarra, saltari fina eta edozein agindu egiteko beti prest zegoena, Batan edo (ez dut ondo gogoratzen) izeneko morroi beltz bat, eta, gainera, Dicken ausardiara, hitz leu-nera eta planta ederrera hainbat emakume eder (artzain gazteetatik

hasi eta markesa zaharretaraino) errenditzen zi-ren. Ni neu ere azkar baino lehen errenditu nin-tzen Dicken xarmari eta haren abenturak argita-ratzen zituzten liburuak hasi eta bukatu arte ez nintzen lasai geratzen. Dickek bezala, ausarta, ke-mentsua, lotsagabea, neskazalea eta ahozikina izan nahi nuen nik ere...

Geroztik jakin ahal izan dut Richard Turpin izeneko ebasle eta bide-lapur bat (ezizenez Dick Turpin deitua) oraindik gazte zela urkatu zutela Ingalaterran, inguruetakoazienda, abere, onda-sun eta emakumeetan egindako pikardiengatik, baina pentsatu nahi izan dut Dick Turpin horrek ez zuela inolako zerikusirik nik miresten nuen harekin.

J. M. OLAIZOLA, *TXILIKU*

From Never Man's Land

... kapitaina erotzeraino sutzen zuen zerbait zeukan Peter Panek. Ez zen honen ausardia, ezta bere itxura erakargarria ere, ez zen bere... Baina zuzenean esan behar da, guk baitakigu hain zu-zen zerbait hura zer zen eta aldarrikatuko dugu. Lotsagabekeria zen, Peter Panen burgoikeria ha-rra.

Peter Pan eta Wendy, J. M. BARRIE

Morroi hark zurtuta nindukan. Ez zen beste ipui-netako haurrak bezalakoa, ez, hura lotsagabea zen, independentea eta askea. Erreboltari bat. Ez zeukan inongo eginbeharrik bizitzan, inongo erantzukizun edo ardurarik. Eta onena: horrela izango zen sekulako.

Peter Panek ez zahartzea erabaki zuen, erabaki gogor eta aldi berean zoragarria; gogorra, heldua

izatearen zera hori ez zuelako inoiz ezagutuko, eta zoragarria, arrazoi berberarengatik. Izan ere, mundu errealeko bizitzari buruz ez du ezer entzun nahi, ez du oroitu nahi zer den familia bat eta ama bilatzen du bere herrira eramaten duen neskato guztiengan –ezaugarri meziprezagarria inolaz ere–: erabakia hartu ostean ere, bizitzaren tragediak izugarri erakartzen baitu. Neuk ere bitan pentsatu gabe hartu izango nukeen erabaki hura; haurrok bagenekien, badakite, urte bakar batzuk igarota ametsen urritzea datorkigula, eta arazoak, eta ardurak. Wendyk zioen bezala, «helduek ez dute hegan egiten».

Peter Pan hegan dabilen haur bihurri bat da; ez da inozo bat. Batzuetan umore txarrez dago, edo triste, Betirako Gaztetasuna ez baita debalde lortzen, zelatan du beti zalantza. Wendy, ordea, *positibom* bat da, Superni aspergarri baten jabe, erdi Nancy –ez, jakina, Barbie deigarri eta moderno– erdi amatxo, kamisoi urdin batek goitik behera estaltzen duen pepeko neskato zentzuduna. Horrexegatik, liburuaren azkeneko atalak «... eta Wendy hazi egin zen» deritzo. Wendy ezkondu egin zen, benetako ama izan zen –zertarako ama izan nahi, hain goizetik? Ez ote zen aspertuko bizitza osoan zehar «ama» izaten?– eta alabatxo bat eduki zuen. Heldu bihurtzeko irrikaz zegoen, hazteko, nahiz eta gero, hel(du)tzean, negar mingotsari ematen zitzaion latzean behin, betirako haur izatearen aukera baztertzeagatik.

Hori gertatzen baita, jakin-min handiak handi egiten gaitu. Badakit jende asko han gelditu zela, heldu nahi gabean, zahartzaroari uko egin ez, baina ez zoritxarrez Peter Panen lur miresgarrian, hemengo inguru krudelean baizik, ero deitzen zaie ume handi horiei. Batzuk barruan daude, beste batzuk kalez kale dabilta, disimulu etengabean, kirurgiaz eta. Garai hartan ez gelditzeko erabakia gogo txarrez hartu nuen, ez nuelako halako traste patetiko bilakatu nahi, Blanche Le Bois edo Oskar latorrizko danborraria bezala. Never Man's Land uhartean gelditu behar, betirako haur duin izatekotan.



Nik Peter Pan nahi nuen izan, lotsagabe, heldugabe, heldugabea; zoriontsu arduragabea. Gauzak ahanzten zituen eta pertsonak ere bai, horregatik ez zuen benetako mina ezagutzen. Ingurukoa, gaurkoa eta kito: haur galduak, azalgorriak, piratak, sirenak, iratxoak... gorroto zuen eskola eta ez zen inoiz idazkari bizardun bat izango.

Pertsonaia gustuko dudala diot, ez banuke ere laguntzat nahiko, nazkagarria baitzen neskekin. Liburuak hori dauka, penagarri ematen dugula andreok: amatxo jasanezinak, etxeoandre garbitzaile konpultsiboak, iratxo axaleko eta jeloskorrak, sirena lehiatsuak... Nana txakur-emea ere ezin onik atera! 1911n idatzia izana ez da aitzakia. Hala eta guztiz ere, behin eta berriro itzultzen naiz gertakizun eder haietara (horregatik dut gustuko apika leiho ondoan lo egitea), eta behin eta berriro etortzen zait burura haurtzaroan ezaguturiko hazi nahi ez zuen haur basati hura.

ARRATE EGAÑA